

Literatura →

Artista, artea definitzen

Alex Gurrutxaga

Lev Tolstoik 1898an eman zuen argitara *Zer da artea?*. Gaur, euskaraz irakurtzeko aukera dugu Aritz Gorrotxategik egindako itzulpenean. Edizio polita da: hitzaurre luzea du, eta amaieran solasaldi bat —Gorrotxategiz gain, Bernardo Atxagak, Harkaitz Canok eta Andoni Egañak parte hartu dute—.

Hitzaurrea zinez egokia da. Gorrotxategik uztartzen ditu Tolstoiren bizitzako gertakari garrantzitsu zenbait eta haren pentsaera poetikoa. Argibideek testu nagusia irakurtzen laguntzen dute, eta, hein batean horiei esker, ez da beharrezkoa Tolstoiren literatura lanak ezagutzea.

Tolstoiren testuak ez du, oro har, gaurkotasan apartekorik. Ikuspegi itxia ageri du arteaz, dagoeneko bere garaiko mugimenduek atzean utzia zutena. Laburtzearen, adibide bat: Tolstoik erabat arbuatzen du Frantziako simbolismoa, iluna eta ulergaitza delako. Gaurtik begirata, onartzen dugu modernismoak ekarri zuen berrikuntza nagusietakoa sentsazioei eta sugestioari eman-

dako balioa dela. Tolstoik, ordea, ez du onartzen arte modernoak hartutako sentsazionalitatea; errusiarraren iritziz, arteak sentimenduak transmititu behar ditu, eta ez sentsazioak.

Zaharkitua geratu da artea definitzeko jarraitzen duen bidea, baita *arte falsua* epaitzeko duen modua ere. Esaterako, Tolstoiren ustez, Goetheren *Fausto*-k ezin du benetako zirrara artistikorik eragin, maileguan oinarritua dagoelako.

Alabaina, badira puntu oso interesgarriak ere. Aipagarria da Elizak eta batez ere goi-klaseak artearekiko duten jarrierari egiten dion kritika zorrotza. Tolstoiren ustez, klase honek arte falsua kontsumitzen du, erantzuten diona harrokeriari, bizitzaren gogaitasunari eta sexu grinari. Interesgarria da arteari ematen dion balio soziala ere: «erlijio kontzientzia» dio berak, guk etika deituko genioke, ziurrenik. Tolstoirentzat, «artearen esentzia, edozein arterena, gizakiak batzea da» (104. orrialdea): artistak bere sentimendua transmititzen du obraren bidez, eta *kutsatze* horrekin senidetasuna zabal-

tzen da munduan. Gorrotxategik ongi garatzen du puntu hori hitzaurrean, eta Atxagak ere aipatzen du solasaldian. Atxagak dioten bezala, alde horretatik, Tolstoik utopien garaikoa da: «Berak dioenez, norbaitek sentimendu hori izan du, eta kutsatzearen bila joan da, komunikazioaren bila (...). Beraz, denon artean hala-ko..., ez dakit nola esan, komunitate bat edo osatzen da» (128. orrialdea).

Solasaldira iritsita, irakurleak espero lezake Tolstoiren ikuspegi nolabait eguneratzea: konpa-



'ZER DA ARTEA?'

- **Egilea:** Lev Tolstoy.
- **Itzultzailea:** Aritz Gorrotxategi.
- **Argitaletxea:** Meettok.

ratzea, kritika egitea edo testu-iguruan jartzea. Alde horretatik, esango nuke solasaldiak nekez betetzen duela bere funtzioa; izan ere (solasean aritu direnen alde esan beharra dago), Tolstoiren ikuspegi hain itxia izanik zenbait puntutan, zaila ematen du eguneratzea. Gainera, Gorrotxategi oso ongi bideratzen du solasaldia, baina, halere, digresio asko dagoela esan daiteke.

Bestalde, itzultzaileak (adierazita) testu originalaren atal zenbait ezabatu ditu. Esango nuke kasu batzuetan eztabaidagarria dela kenketa egokia ote den ala ez. Adibidez, testu guztian behin aipatzen direnez gero, uste dut merezi lukeela irakurtzea Tolstoik Malthus eta Marxen teoriak kritikatzeko dituen pasarteak. Aldiz, Frantziako simbolismoaren analisia kendu izana ulergarriagoa da, berez duen luzera kontuan hartuz.

Azken batean, edizio oso interesgarria da maisu errusiarraren pentsamendu estetikora hurbiltzeko. Beste kontu bat da *Zer da artea?* testuan Tolstoik ageri duen estetika eta haren gaurkotasuna.



'ARGIAREN LEIZEAN ZEHAR'

- **Egilea:** Kristian Perez Zurutuza.
- **Argitaletxea:** Ediciones Delta.

Lau zatitan banatutako bidaia metaforiko bat da poema liburu hau. Kontzientzia pertsonalaren argitzeari buruzko metafora den bidaia bat; baita gizakiaren kolektibotasunarena ere, pertsona osatzen duten askotariko alderdietan mamitua: amodioa, heriotza emozioak...



'ZORITZARREKO IPUINAK'

- **Egilea:** Adel Alonso.
- **Itzultzailea:** Irati Urkulo.
- **Argitaletxea:** Circulo Rojo.

Hiru narrazio biltzen ditu liburua, eta, denetan, protagonis- tak biluzik eta agerian geratzen dira. Batzuetan, zoriak eta hala- beharrak behartzen dute pertsonaia zorigaitzoko existentzia batera; beste hainbatetan, norberaren hautuak edo utzikieriak bultzatzen dute frustraziorako bidera.



'ARKIMEDESEN PRINTZIPIOA'

- **Egilea:** Josep Maria Miro i Corominas.
- **Itzultzailea:** Iñaki Zurutuza.
- **Argitaratzailea:** Artezblai.

Udal igerileku batean girotutako antzerki lan honetan, neska- to batek esaten die gurasoei ikusi duela entrenatzailea beste haur bati ahoan musua ematen. Zalantzak sortzen dira, orduan, gertakariaren benetako larritasunaren inguruan.

↓ Haur eta gazte literatura

Joxe Miel Barandiaran berrirakurrit

Bospasei urtetik aurrerako irakurleek esku artean ibiltzeko moduko album ilustratua, tamainaz ertaina, koloretan eta tapa gogorrek, gauzen zergatia mitologiak azaltzen duen eran aditu nahi duenarentzat aproposa.

Obra eraikitzeko aitzakia Joxe Migel Barandiaranek bildutako mitoen berrirakurketa da, idazleak bere erara josia. Nomada izateari utzi, eta sedentario nola bihurtu ginen azaltzen zaigu, eta trantsizio horretan kristautasunak eta paganismoak izan zuen elkarbizitzaren berri ematen.



'BASAJAUN ETA MARTIN'

- **Egilea:** Yolanda Arrieta.
- **Ilustratzailea:** Maite Caballero.
- **Argitaletxea:** Erein.

Barandiaranen eskutik, bestela ezin eta, Martin Txiki dugu gizakion heroi. Gertakariak greziako mitologian agertzen diren era bertsuan azaltzen dira, izaki ahalguztidunei jakintza lapurtuz eta haiekin gure zibilizazioa eraikiak. Herria ardatzen duen eliza, lehenik; elikaduraren oinarri berria den garia, jarraian.

Testua hainbat mitoren fusioarekin eraikita dago, giltza diren hainbat esaera gordeta.

Ilustrazioek karantza berezia ematen diote testuari: gizakiak irudikatzen dituen zehaztugabean ezarritako buru soil baina espresio askokoak erabili dira; gaueko aurpegia duen laino gisan irudikatu da; hildakoak mendian ezarritako begiak dira; eta Basajaunak ezohiko gorpuzkera dauka, batzuetan belar meta dirudiena, gehienetan mendi baten forma duena. Zuri- beltzarekin batera berdea da nagusi ilustrazioetan, eta, xehe- tasunak nabarmentzeko, gorria eta areak erabili dira.

■ **IMANOL MERCERO**

Jadoulen hamabi

Berriki argitaratu dira Jadoul- lek sinatutako *Sua, suhiltzaileak!* eta *Bihotz-bihotzetik!* albumak, lputargi sailean, ohiko formatuan, kartoizko orriak dituzten album etzanetan. Eta egile belgikar honi dozena bat lan euskaratua dioten honetan, begiratu orokor bat egingo diogu.

Jadoulen orain arteko obran animalia gizatiartuak izan dira nagusi, eta pertsonak, daude- nean, haurrak izaten dira. Kon- traste handiko eszenak sortzen ditu, kolore biziek in margotuak, marra lodiz inguratutako ele-



'SUA, SUHILTZAILEAK!'

- **Egilea:** Emile Jadoul.
- **Ilustratzailea:** Emile Jadoul.
- **Itzultzailea:** Jose Antonio Sarasola
- **Argitaletxea:** Ibaizabal.

mentu gutxi batzuekin eta atze- alde soilekin. Kontaketa- ren daramaten ekintzak zikliko- ak izaten dira, alegia, behin eta berriz errepikatzen diren esze- nak, amaierako korapilo aska- tzea gertatu arte. Txikienekin hari narratibo erabat apala jos- ten du, eta, irakurlearen adinean gora egiten duen neurrian, esze- nak kopuruz murriztu eta ña- barduraz aberastuta agertzen dira. Adibide pareia jartzearen, BERRIAKO gure hemerrotekan ba- dugu Jadoul-ek txikieneztako sortutako *Kili-kili* (2012-07-01) eta koxkorragoentzako *Oilo- bustia* (2009-04-12).

Ezaugarri hauek egile gehia- gotan agertzen dira, hala nola Guido Van Genechten eta Lies- bet Slegers belgikararen (Txomin, Katalin,...), bai eta Jo Lodge (Kroko) britainiarren- gan. Badira mekanika bat eta estereotipo batzuk, txikienez- tzaiko literaturan ezarrita dau- denak. Agian, sorpresarako eta umorerako gaitasunak bereiz- ten du Jadoul gainerakoengandik.

■ **IMANOL MERCERO**